


BAKTERIO-POPULAZIOAK ZENBATZEKO OINARRIZKO METODOAK

AUTOEBALUAZIOA: KONTROLA



Inés Arana, Maite Orruño

Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saila

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea



2. GAIA. MIKROORGANISMOEN KONTROLA

1. Zer da mikroorganismoen kontrola?

- a. Mikroorganismoen hazkuntzaren inhibizioa
- b. Mikroorganismoen suntsipena
- c. Aurreko biak

2. Esterilizazioa...

- a. ...organismo bizidun (zelula, espora eta organismo azelular) guztien heriotza edo ezabapena da.
- b. ...eta desinfekzioa sinonimoak dira.
- c. ...mikroorganismo patogenoen forma begetatiboak suntsitzean datza.

3. Hurrengo esaldietatik, zein da zuzena?

- a. Esterilizazioa eta desinfekzioa sinonimoak dira.
- b. Antiseptikoak eta desinfektatzaileak konposatu kimikoak dira.
- c. Antiseptisia eta desinfekzioa sinonimoak dira.

4. Hurrengo esaldietatik, zein da zuzena?

- a. Esterilizazioa prozesu fisikoen bidez baino ez da egiten.
- b. Desinfekzioan konposatu kimikoak erabiltzen dira.
- c. Gainazal bizigabetako mikroorganismoak suntsitzeko erabiltzen diren agente kimikoak antiseptikoak dira.

5. Beroaren bidezko mikroorganismoen kontrolari buruz:

- a. Zenbat eta luzeago izan prozesuaren iraupena, orduan eta gutxiago izango da bere efektu.
- b. Tenperatura baxuetan azkarrago suntsitzen dira mikroorganismoak tenperatura altuetan baino.
- c. Orokorrean, esporak zelula begetatiboak baino erresistenteagoak dira beroarekiko.

6. Heriotza beroagatik:

- a. Heriotza azkarrago gertatzen da mikroorganismoen dentsitatea altua bada.
- b. Orokorrean, birusek ekoiztutakoak esporak erresistenteenak dira beroarekiko.
- c. Bero hezea bero lehorra baino eraginkorragoa da.

7. Lagina tenperatura zehatz batean berotzen dugunean, murrizte hamartarraren denbora...

- a. ... populazioaren %90a suntsitzeko behar den denbora da.
- b. ... populazioaren %10a suntsitzeko behar den denbora da.
- c. ... populazio guztia suntsitzeko behar den denbora da.

8. Heriotza termikoaren denbora...

- a. ... murrizte hamartarraren denbora da, esterilizazioa beroaren bidez egiten diren kasuetan.
- b. ... tenperatura zehatz batean, zelula guztiak hiltzeko behar den denbora da.
- c. ... tenperatura zehatz batean, zelula guztien hazkuntza inhibitzeko behar den denbora da.

9. Autoklabeari buruz:

- a. Autoklabean, ura berehala heltzen da irakite-puntura.
- b. Mikroorganismoek ez dute autoklabe barneko lurrun-presioa jasaten.
- c. Presiopeko ur-lurrunari esker, autoklabe barneko tenperatura uraren irakite-puntuarena baino altuagoa izan daiteke.

2. GAIA. MIKROORGANISMOEN KONTROLA

10. Autoklabean...

- a. ... edozein hazkuntza-medio esteriliza daiteke.
- b. ... ontziak hermetikoki itxi gabe sartu behar dira.
- c. ... erabilitako materiala soilik esteriliza daiteke.

11. Errausketa:

- a. Ez da erabiltzen mikrobiologian.
- b. 5. mailako mikroorganismoekin (arriskutsuenak) kutsatutako materiala suntsitzeko baino ez da erabiltzen.
- c. Ereintza-euskarria garreztatzean, eraman dezakeen material organikoa errausten ari gara.

12. Erradiazio ultramoreari buruz (UV):

- a. Mikroorganismoen kontrolean UV-A, UV-B eta UV-C erradiazioak erabiltzen dira.
- b. Mikroorganismoen kontrolean UV-C erradiazioa erabiltzen da.
- c. Erradiazio hauek ez dira erabilgarriak mikroorganismoak kontrolatzeko.

13. Iragazketa(k):

- a. Beroarekiko sentikorrek diren likidoak esterilizatzeko soilik erabiltzen da.
- b. Laginaren mikroorganismoak suntsitzen ditu.
- c. Gasak edo beroarekiko sentikorrek diren likidoak esterilizatzeko erabiltzen da.

14. Kirby-Bauer teknika erabiltzen da:

- a. Mikroorganismo baten antibiotikoarekiko sentikortasuna ikertzeko.
- b. Bizigabeko objektuak desinfektatzeko.
- c. Antibiotikoak sailkatzeko, egitura kimikoaren arabera.

15. Hurrengo esaldietatik zein da zuzena?

- a. Pasteurizazioa Pasteur labean egiten da.
- b. Tindalizazioak erradiazio ultramorearen erabileraren bidez egiten da.
- c. Fungizidak eta bakterizidak agente mikrobizidak dira.